

[a]

aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

2015eko Uztaila



**GAZTE LOKALEN FENOMENO SOZIALA  
AZTERTU ETA ELKARBIZITZA ARAUDIA  
ZEHAZTEKO PARTAIDETZAZKO  
PROZESUA, 2014-2015**



**Oñatiko Udala**

0	SARRERA.....	3
1	ERREFERENTZIAZKO MARKO TEORIKOA.....	4
2	OHAR METODOLOGIKOAK .....	6
2.1	PROZESU PARTE HARTZAILEAREN IKUSPEGI METODOLOGIKOA .....	6
2.2	PROZESU PARTE HARTZAILEAREN OINARRIAK .....	7
2.3	PROZESUAREN URRATSAK.....	8
2.4	PROZESUAREN KRONOGRAMA .....	15
3	TALDEA.....	16
4	GAZTEEN LOKALEN EGOERAREN DIAGNOSIA ETA BALORAZIOA .....	18
4.1	GAZTEEN LOKALEN EZAUGARRIAK ETA ERABILTZAILEEK ERABILERA ETA HARREMANEN INGURUAN DITUZTEN PERTZEPZIOEN IRITZI ETA BALORAZIOAK .....	18
4.2	GAZTE LOKALEN FENOMENOAREN BALORAZIOA .....	22
4.3	GAZTE LOKALEN ERABILERA ETA FUNTZIOAK .....	23
4.4	LOKALEN INGURUAN SORTZEN DIREN GATAZKAK.....	25
4.5	SORTZEN DIREN BEHARRAK .....	26
5	EMAITZA NAGUSIAK .....	28
5.1	PROPOSAMENAK.....	29
5.2	HARTUTAKO ERABAKIAK .....	30
6	PROZESUAREN BALORAZIOA .....	33
7	AURRERA BEGIRAKO PROZEDURA .....	35
8	ZENBAIT ONDORIO.....	37
9	ERANSKINAK .....	39

## 0

## SARRERA

Hurrengo orriotan, "**Oñatiko Gazte lokalen fenomenoaren inguruko bizikidetza araudia zehazteko partaidetza prozesua, 2014-2015**"-k eman duena argitaratzen duen txostena aurkeztu dugu. Fenomeno honen inguruan dauden pertsonen iritzia, balorazio eta pertzepzioak ezagutzeko bilatu du prozesuak, eraikuntza kolektiboaren bitartez fenomeno honen arautzerako baliagarri izango diren bitartekoak sortzeko.

Prozesu honen antolaketaren oinarria, xede taldeen arabera funtzionatzea izan da, fenomeno honen baitan dauden interes desberdinak elkartuz eta pertsona bakoitzaren iritzien oinarrian joko-arau partekatu bat osatuz.

Eraikuntza komunitarioa sortzea izan denez Oñatiko udalaren eta Aztikarren artean hitzartutako lanaren helburua, bizipen pertsonaletatik abiatuz eraikuntza eta ikuspegi kolektiboa bilatzea izan da prozesuaren iparrorratza. Modu honetan, bakoitzaren esperientzien garrantzia aintzat hartua izan da testuinguru kolektiboa sortzeko bitarteko gisa.

Dokumentu hau honako arloen arabera osatua dago: sarrera labur honen ondoren, metodologia oharrak eta partaidetzazko prozesuaren eskema, urratsak eta parte hartze datuak adierazten dira, eta honekin batera prozesua gorpuztu duen taldearen osaera. Laugarren atalean, lokalaren fenomenoaren inguruko diagnosi eta balorazioak ageri zaizkigu. Hurrengo atalean emaitza nagusien aurkezpena egiten da. Bosgarrenean berriz, partaideen balorazioari eta prozesuaren ondorio eta aurrera begirako urratsei buruz jardungo dugu.

Sarrera hau amaitzeko, aipamen berezia egin nahi diegu egitasmoaren oinarri sendoa osatu duten herritarrei. Zentzu honetan, sortutako edukia oso baliagarria da, ikuspegi eta bizipen anitzekin baita osaturik baitago. **Oñatiko gazteen lokal desberdinen bueltan dauden pertsonak dira lan honen benetako balioa, eta horren errekonozimendu osoa merezi dute. Zuek eskainitako ideia bakoitzaren oinarrian osatu dira proposamenak. Argi dago proposamen bakoitza, hitzez hitz, zaila dela bere horretan adieraztea, baina proposamen bakoitzak eragin duela emaitza gisa aurkeztu diren proposamenetan. Beraz, guztioi, eta banan bana, zorionak eman nahi dizkizuegu egindako lanagatik, zuotako bakoitza gabe lana ez baitzen berdina izango.**

## 1

## ERREFERENTZIAZKO MARKO TEORIKOA

Gazte lokalen fenomenoa gazteriaren zati garrantzitsu bat murgilduta dagoen egitate soziala bilakatu da azken urteotan, eta horren eraginez agenda politikoetan presentzia eta lekua irabazten joan den gaia da. Eta ez da soilik Oñatin edo Gipuzkoan ematen ari den fenomeno, Euskal Herriaren eremu luze zabalean hedatua dagoela esan dezakegu.

Gazte lokalena gazteriaren aisialdi eredu aldaketarekin batera hedatzen ari den fenomeno da, errealitate sozial berri baten adierazpena. Gertakari honek Oñatin hartzen dituen ezaugarri eta berezitasunak ezagutu nahi izan dira lan honetan.

Beraz ulertzeko badira aintzat hartu beharreko zenbait ezaugarri: aisialdi ereduaren aldaketa, kolektibotasun praktika berriak, jardueren pribatutasuna... Ikuspegi baloratiboetatik haratago gazteriaren zati garrantzitsu batek bilatzen duen eredu bati erantzuten dio gazte lokalen formatuak.

Fenomeno berria izatearekin batera, badira fenomeno honen ezaugarritzearen baitan errepikatzen diren adierazpide sozialak: koadrila da gazteriaren identitatea sortze prozesuan sozializazio gune ezinbestekoa. Koadrilak identitate hornitzailea izaten jarraitzen du gazteriarentzat, bere baitan praktika kolektibo sendoak gorpuzten direlarik. Azpimarratzeko modukoa suertatzen da, era berean, lokalak eskaintzen duen pribatutasunak markatzen duela lokalak aisialdi eredu gisa bilatzearen garrantzia.

Fenomeno sozial hau komunitate baten baitan gertatzen den heinean, gazteak soilik ez diren beste espektroei ere eragiten die. Horregatik Oñatiko udalak fenomeno honen emergentziari harrera egin eta sortzen dituen interakzio sozialak aztertu eta partekatu nahi izan ditu.

Indarrez sartu den fenomeno honek suposatzen duen interakzio sozialak talde eta interes desberdinak jarri ditu elkar harremanean. Komunitate baten baitan ematen den fenomeno berri baten existentzia azaleratzen digu gaiak. Beraz, herritarren arteko elkarbizitzari zuzenean eragiten dion gertakaria bilakatu da.

Elkarbizitza soziala eraikuntza prozesu bat da, modu eta forma desberdinetan ageri zaiguna, betiere bizitza propioa (norbanakoa eta "mikrotaldea" kasu honetan) eta komunitatea zaindu eta errespetatzera bideratuta egon dena.

Elkarbizitzen ikasteak eta elkarbizitza eraikitzeak oinarrizko irakaspen batzuk exijitzen ditu halaberrez. Pertsona izaki sozial gisa errealitatean bizi da, bere buruarekin eta gainontzekoekin.

Jendarte baten parte izatea interakzio arau batzuen existentziari egokitzea, edo ez, esan nahi du. izaera sozialak, beraz, interakzio aldagai hau guztion baitan dagoela adierazten digu.

Honegatik politika publikoen diseinuan herritarren arteko elkarbizitza bada administrazio publikoek duten erronka garrantzitsua. Elkarbizitza sortzea baino, elkarbizitza sustatu, elikatu eta sortua izateko baldintzak bermatzea dagokie administrazio publikoei, herritarrak boteretuz sortuko baitira herritarren arteko hitzarmen komunitarioak; eta kasu honetan, herritarren arteko bizipen eta beharretatik abiatuta sortuko baita aldean arteko errespetua.

## 2

## OHAR METODOLOGIKOAK

### 2.1 PROZESU PARTE HARTZAILEAREN IKUSPEGI METODOLOGIKOA

**Prozesu honetan garatutako metodologia **Ikerketa (hausnarketa), Ekintza, Parte hartzean** sustraitzen da eta teoria horretatik elikatzen da.**

**Metodologia honek mesede egiten dio talde nahiz komunitateen auto-eraketari.** Metodologia hau ondo egokitzen da behetik gora doan norabidean eraikitzen diren hausnarketa kolektibo nahiz antolaketa prozesuetan. Hain zuzen ere, garapen komunitarioko esperientzietarako marko metodologiko egoki eta sustatzailea da.

**Aplikaturako IEP** metodologiaren **ezaugarri batzuk** honakoak dira, egitasmo honen zioekin lotura izan dutelakoan:

- a) Metodologiaren izenean agertzen den "**Ikerketa**"ren haria hartuz, errealitate baten hausnarketa eta diagnostikoa burutzen da, ezagutza kolektiboaren oinarrian; kasu honetan Oñatiko gazteen lokalen fenomeno soziala aztertzeko baliagarria izan zaigu prozesua. Ikuspegi kritikoaren (autokritikoa barne) garapena landu eta oinarri izan du aztergaiaren diagnostikoan.
- b) Prozesuaren heziketa izaeraren bitartez auto-kontzientzian aurrera egitea bilatzen da, kontzientziaren mobilizazioan urratsak emateko, segidan. **Ekintzarako** hausnarketa izan da nagusiki abiatutako proiektua, prozesu horretatik ondorioztatu diren zereginak bereak egingo dituen subjektu kolektiboren erakuntza funtsezkoa da, urrats exekutiboak udalak hartuko baditu ere (ordenantzaren erredakzio eta aplikazioa). Bestela esanda, subjektibitateen eraldaketa eta subjektu kolektiboen eraketa aintzat hartzen ditu I.E.P.ak, hausnarketaren emaitzekiko konpromisoa sustatuz.
- c) Eta ezinbestez **parte-hartzailea** da, pertsona guztien parte-hartzera irekia egon delako hasieratik. Zehaztu diren xede-taldeak, bereziki, interpelatuak izan dira komunikazio fasearen baitan, baina interes orokorra (elkarbizitza) duten herritarrei zabaldua egon da era berean. Parte-hartzailea izateko baldintza honakoa izan da:
  - Lehenengo arrazoa, informazioa eta hausnarketa ariketaren bitartez eraiki diren ondorio praktikoak finagoak, osatuagoak eta borobilagoak izan dira **inoren ezagutza eta esperientzia kanporatu gabe**.
  - Bigarren arrazoa, prozesuaren dimentsio hezitzailearen bitartez sustatu nahi den **subjektu kolektiboan pertsona bakoitza parte delako, eta ez dagoelako inor soberan**. Honegatik prozesu integratzailea izan da.

## 2.2 PROZESU PARTE HARTZAILEAREN OINARRIAK


Prozesua gidatu duten jarduteko oinarriak honakoak dira, parte hartze orekatua lortze aldera pentsatuta egon dena.

- ✓ **Informazioa, komunikazioa eta gardentasuna.** Komunikazioa da parte hartze prozesuen gako nagusienetako bat. Kasu honetan, joan-etorriko komunikazio ildoak garatu da non Oñatiko herritarrei prozesuaren informazioa helarazi zaien eta bueltan euren hautemate, iritzi, ekarpen nahiz proposamenak eta balorazioak jaso diren. Beraz, komunikazio ildoak parte hartze prozesuaren hastapenean, prozesuaren beraren garapenean eta prozesuaren amaieran etengabea izan da.
- ✓ **Parte-hartzea.** Parte hartzea informazio fluxu hutsa baino gehiago dela ulertuz, parte hartzea **eraldaketarako tresnatzat dugu.** Irabazle-galtzaile eskemak alboratuz, hausnarketa, eztabaida eta elkarriketa eskamatan sakondu dugu prozesuaren zehar. Ikuspegi ezberdinak mahaigaineratu eta ikuspegi bateratuak sortzeko baliatu ditugu parte hartze espazioak.
- ✓ **Eraikuntza kolektiboa.** Parte hartze prozesuaren zehar, norbanakoaren hautemate, iritzi, ekarpen eta proposamenak izan dira oinarri, eta norbanakoa abiapuntutzat hartuz, talde ikuspegia osatzea eta ekarpen nahiz proposamen zehatzak biltzea izan da helburua. Hortaz, **norbanakoez osaturiko lan-taldea izan da oinarritzeko gunea,** norbanakoaren eta taldearen arteko elkarrekintza etengabea sustatuz, beti ere pertsonak direlarik prozesuaren ardatz nagusia. **Horretan, subjektu eta subjektibitateen balioa eta lanketa izan da eraikuntza kolektiboren oinarria.**
- ✓ **Prozesuaren izaera malgua: bidea helburu.** Pertsonen izaerak eta ikuspegiak dituzte oinarri prozesu parte hartzaileek. Prozesuaren diseinu proposamena eta ibilbide-orrira irekia egon da bidean gertatu diren gorabeheren zein parte hartzaileen beharrei, egoerak eskatzen duen neurrian egokitu ahal izateko.
- ✓ **Heziketa eta formazio prozesua.** Edozein parte hartze prozesuk indarrean dagoen errealitatea zalantzan jarri eta berraztertzea eskaintzen ditu; beraz, partaidetza zein elkarbizitzan sakontzeko heziketa prozesutzat har daitezke. Era berean, parte hartzaile guztiak elkar-elikatzen dira eta esperientzia, ezagutza zein jakintzaren elkartrukeak parte-hartzaile guztiak aberasten ditu.
- ✓ **Erabakitzailea.** Partaidetzako prozesu honek izaera erabakitzailea izan du hastapenetik. Prozesua abian jarri duen Oñatiko udalak prozesuaren zehar elkarbizitza protokoloaren edukien inguruko erabakiak errespetatu eta aintzat hartzeko konpromisoa hartu du. Horrela adierazia izan zaie prozesuko partaideei hasieratik.
- ✓ **Berdintasuna.** Pertsonen arteko prozesua sexu, genero, adin, arraza, ideologia, sinesmen edota bestelako faktoreek eragindako bazterkeriak ekidinez garatu da. Hori ekiditeko, heziketa prozesua berdintasunean eraiki dugu.
- ✓ Prozesuaren parte hartu duten xede taldeetan, **gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna aspektu metodologiko** (emakumearen parte hartzea sustatuz eta bere egoera ikusaraziz) **eta kualitatiboan bermatuko da.**

## 2.3 PROZESUAREN URRATSAK

Prozesu hau fase desberdinetan garatu da, prozesu logika bati jarraituta.

Hurrengo orrietan prozesuaren urratsak zehaztasunez agertu arren, oinarritzko ibilbidea honakoa izan da:



Horretarako, honako fase hauek abiatu dira:

### 1. FASEA:

#### GAZTE LOKALEN FENOMENORA GERTURATZEA ETA ERREALITATE SOZIALA EZAGUTZEKO AZTERKETA. LOKALEZ LOKAL OSATUTAKO GALDETEGIAK

#### 1. URRATSA: LOKALEN MAPA ETA EZAUGARRITZEA:

Herriko bi gazteren eskutik, Oñatin identifikatutako lokal guztietatik banan bana igaro eta lokalen mapa eta ezaugarrien landa lana burutu da. Udaleko ordezkariak eta gazteek ezagutzen zituzten lokaletatik egin da erronda lehendabizi, eta lokaletan jasotako informazioaren arabera identifikatutako lokal berrietatik ere pasa dira.

Galdetegiaren diseinua egin da, hainbat datu jaso direlarik hiru eremu hauetan: lokalaren azpiegitura, lokalaren osaera eta erabilerak eta prozesuarekiko interesa. Ondoren, datuak ustiatu eta txosten batean aurkeztu dira.

Lehen urrats honen emaitza, beraz, honakoa izan da:

- Oñatiko lokalen mapa. 1.go eranskinean jasotzen da.



- Oñatiko lokalen ezaugarrien txostena. Txostenak biltzen dituen oinarrizko datuak honela laburtzen dira:
  - Alokairuaren ezaugarriak (prezioak eta lortzeko moduak)
  - Lokalaren ezaugarriak (azpiegiturak eta baliabideak)
  - Lokalaren osaera (kideak, adinak, sexua, ...)
  - Lokaleko kideen harremanak fenomenoan eragina duten gainontzeko taldeekin (bizilagunak, jabeak, udal zerbitzuak)
  - Oñatiko udalak abiatutako partaidetzazko prozesuaren inguruko balorazioa
- Prozesuaren deialdia eta jarraipena egiteko lokaletako gazteen ordezkarien sarea osatzea.

**2. URRATSA: LOKALEN KOMUNIKAZIO SAREA OSATZEA ETA PROZESURAKO DEIALDIEN JARRAIPENA EGITEA**

Komunikazio bide ezberdinen bidez, prozesuaren berri eman eta deialdiak egiteko bitarteko ezberdinak jarri dira martxan bigarren urrats honetan. Horretarako erabilitako bitarteko eta helburuak honakoak izan dira:

- Prozesuaren berri emateko ekintzak:
  - Galdetegiak pasatzeko lokalez lokal egindako bilera txandetan prozesuaz informatu da.
  - Prentsa agerraldia: prozesuaren berri emateko asmoarekin egindako prentsaurrekoa izan da. Horretaz gain, saio irekietarako deialdiak egiteko tartea ere hartu zen agerraldian.
  - Euskarri fisikoak, diptikoa eta kartelak: kalean zehar, Udal azpiegiturretan eta lokalez lokal banatu dira euskarri hauek.



- Deialdi berezituak: lokaletako erabiltzaileekin email eta telefonoen datu-basea osatu zen galdetegien bidez, eta bide hau saioetarako deialdia egiteko bide izan dira. Lokaletako jabeei deialdia zuzena egin zitzaizen telefonoz. Gurasoei deialdia ikastetxetako komunikazio bideen bitartez egin zaie.
- Prentsa: egunkari ezberdinetara bideratua izan den prentsa oharren bitartez zabaldu dira deialdiak.
- Sare sozialak: Oñatiko Udalak dituzten euskarri digitalen bitartez zabaldu dira deialdiak.

## **2. FASEA:**

### **GAZTE LOKALEN FENOMENO SOZIALAREN HAUSNARKETA. DEFINIZIOA ETA BEHARRAK ZEHAZTEN XEDE TALDEEKIN**

Lan fase honek helburu nagusia hau izan du: gazte lokalen izatea eta egoeraren inguruko diagnostikoa osatzea. Diagnostika osatzea diogunean, ikuspegi desberdinek dituzten pertzepzioak jasotzeaz ari gara.

Xede talde bakoitzak gainontzekoen estigmatizazio eta aurreiritzietatik kanpo eraikitako lokalen inguruko ikuspegia osatzea izan da helburua, diagnosi propioa egin ostean konpartitu eta adostasunak bilatzeari begira, ikuspegi komunitariorako urratsak emanaz.

#### **1. URRATSA: LOKALETAKO ERABILTZAILEEEN XEDE TALDEAREN SAIO PRESENTZIALA**

Xede talde honekin egindako saioaren helburuak honakoak izan dira:

- Lokalen fenomenoaren inguruko iritzi desberdinak konpartitu
- Lokalen funtzio sozialaren inguruko adostasunak bilatu
- Erabiltzaileen beharren identifikazioa burutzea
- Lokalen erabileraren inguruko balizko gatazken azterketa burutzea

Helburuekin loturik, aipatu beharra dago bigarren mailako helburu bat ere izan dela lokalen mapa eta ezaugarritzearen dokumentua ixtea, hau da, lokalen kokalekuak eta ezaugarri orokorrak beraiekin lantzea.

#### **2. URRATSA: BIZILAGUNEKIN EGINDAKO SAIO IREKIA**

Bizilagunei deialdi zehatza eginik, bigarren urratsa prozesuan inplikaturako xede talde guztiekin biltzea izan da asmoa.

Helburu zehatzagoei dagokionez, beste maila bateko asmoak ere izan ditu lehen saioak:

- Gazte lokalen fenomenoan inplikaturako xede talde ezberdinen arteko elkar ezagutza eta elkarbizitzaren inguruko oinarritzeko ideia eta bizipenak jasotzea.
- Gazte lokalen fenomenoaren inguruko bizipenak eta alde positibo eta negatiboak identifikatu
- Lokalen eta etxebizitzaren funtzio sozialaren inguruko hausnarketa bultzatu.
- Bizilagunek gazte lokalekiko beharrak identifikatu
- Lokalen inguruan izandako eta suerta litezken balizko gatazken aurreko egoerak identifikatu eta enpatia ariketa burutu

#### **3. URRATSA: JABE ETA GURASOEKIN EGINDAKO SAIO IREKIA**

Lokaletako jabe eta adin txikiko erabiltzaileen gurasoei deialdi zehatza eginik, bigarren urratsa prozesuan inplikaturako xede talde guztiekin biltzea izanik asmoa.

Helburu zehatzagoei dagokionez, beste maila bateko asmoak ere izan ditu lehen saioak:

- Gazte lokalen fenomenoan inplikaturako xede talde ezberdinen arteko elkar ezagutza eta elkarbizitzaren inguruko oinarritzko ideia eta bizipenak jasotzea.
- Gazte lokalen fenomenoaren inguruko bizipenak eta alde positiboak eta negatiboak identifikatu.
- Lokalen eta etxebizitzaren funtzio sozialaren inguruko hausnarketa bultzatu.
- Jabe eta gurasoek gazte lokalekiko beharrak identifikatu.
- Lokalen inguruan izandako eta suertatu litezkeen balizko gatazken aurreko egoerak identifikatu eta enpatia ariketa burutu.

### **3. FASEA:**

#### **GAZTE LOKALEN BALDINTZAK ETA ELKARBIZITZA PROTOKOLOAREN ARAUAK ZEHAZTEA.**

Hirugarren fase honen helburu nagusia honakoa izan da: **gazte lokalen baldintzak eta beharrak definitu eta bizikidetzaren protokoloa adostea**. Bide hau egiteko aldean arteko elkar-entzutea eta aldeek konpartitzen dituzten espazioak komunak identifikatzea izan da fase honetako lanaren oinarria.


Fase honetan xede talde hauek hartu dute parte:

- GAZTE ERABILTZAILEAK
- BIZILAGUNAK
- LOKALETAKO JABEAK
- ADIN TXIKIKO ERABILTZAILEEN GURASOAK
- UDAL ARDURADUNAK (Gazteria teknikaria, zinegotziak eta udal langileak)

#### **1. URRATSA: LEHEN SAIO BATERATUA**

Lehen fasean (gazteekin alde batetik, eta bizilagun eta jabeekin bestetik) landutako edukiak azaldu dira honako **helburuekin**:

- Lokalen fenomenoaren inguruko bizipenak ezagutu eta elkar entzun.
- Lokala eta etxebizitzaren funtzioaren inguruko iritziak konpartitu.
- Elkarbizitzaren inguruan aldean beharrak identifikatu.
- Elkarbizitzaren inguruko espazio komunak identifikatu. Modu honetan, pertsona zertan dauden ados bilatuko da.
- Gazte lokalean fenomenoan eragiten duten faktore guztiak identifikatu. Bakoitzaren ikuspegia gainditzeko gogoeta izango da hau.



## **2. URRATSA: BIGARREN SAIO BATERATUA**

Xede talde guztien artean lan egiten jarraitu eta elkarbizitzarako protokolo bat diseinatzeko asmoarekin bigarren saio bateratuan orain arte zehaztutako behar komunen inguruan burutu dira proposamenak, elkarbizitza protokolorako neurri zehatzak izango direnak.

Helburu hauek bilatu dira saioan:

- Elkarbizitza protokolo eta arauak bilduko dituzten gai nagusien inguruan neurri eta proposamen zehatzak jaso
- Gazte lokaletan bete beharreko baldintza nagusien inguruan gogoeta burutu eta neurriak proposatu

## **3. URRATSA: HIRUGARREN SAIO BATERATUA:**

Pertsona eta alde bakoitzaren beharrak eta interesak argi dauden unean, ikuspegi desberdinak biltzen dituen adostasun ariketa planteatu da azken saiorako.

Gai desberdinak identifikatuta eta proposamen desberdinak mahai gainean, proposamen bakoitza aztertu eta desadostasun maila altuena eragiten duten neurriak hobetsi dira saio honetan.

Modu honetan, landutako gaiak honakoak izan dira:

- Soinua
- Neurrien betearazpena
- Azpiegitura baldintzak
- Bizikidetzak
- Protokoloaren ezarpena

Bukatzeko, partaideek prozesuaren balorazioa burutu dute.

---

## **4. FASEA:** **ELKARBIZITZA PROTOKOLOAREN OSAERA ETA PROZESUAREN ITZULKETA (EGITEKE)**

Behin lan saioak burututa eta azken saioan planteatutako gai desberdinen inguruko proposamenak burututa Protokoloaren erredakzioa burutu dute udal barruan.

Sail desberdinetako udal ordezkari politiko eta langileen artean burutu da lan hau, ardura nagusia Parte hartze arloko zinegitzia eta Gazteria teknikarena izanik.

### **a. Partaide guztiekin zuzenean:**

Prozesuan parte hartu duten pertsona guztiei protokolo zirriborroaren aurkezpena burutu. Prozesuko partaideekin **saio baten bidez** egin da.

Partaideekin honako lanketa egin da:

- Prozesuak zer hobetu duen eta zein ekarpen egin dien
- Zein kalte edo arrisku ikusten dioten hemendik aurrerako dinamikei.
- Erredaktatutako protokoloaren balorazioa

**b. Gazteekin zuzenean:**

Aurrerantzean araudiaren baitako integrazioa emateko lokaletako erabiltzaile eta jabeek eman beharreko urratsen berri emango zaie lokaletan banan bana.

Alde batetik, bete beharko duten prozesura azaldu

Bestalde, Lokaletako baldintza eta neurriak azaldu

PROZESUAN ZEHAR BURUTUTAKO SAIOPEN EZAUGARRIAK:

Garatu diren saioek ezaugarri hauek izan dituzte:

- Asmoa gai desberdinen gaineko eraikuntza kolektiboa osatzea izan da.
- Eraikuntza kolektibo horren oinarria bizipen eta esperientzia pertsonalak izan dira; beraz, dinamika indibidualetatik sortu dira talde dinamikak.
- Saioen gako bat alde eta interes desberdinen arteko espazio komuna identifikatzea izan da (partaide guztiek modu batean edo bestean konpartitzen dituzten beharrak identifikatzea, hain zuzen).
- Modu honetan, behar espezifikoak eta behar komunak izan dira eraikuntza lanaren oinarria.
- Espazio komun honen identifikaziotik abiatuta burutu da gai desberdinen inguruko proposamen eta alternatiben zehaztapena.
- Lan taldea edukiak sortzeko berezko gunea izan da.
- Plenarioa, behin gaiak harrotuta, edukiak konpartitu eta eztabaidatzeko gunea izan da.
- Desadostasunak jorrazteko bidea, eduki alternatiboen lanketa zehatza eta posizionamendu indibidualak adieraztea izan da, "gehiengo"- "gutxiengo" eskemak ekidin asmoz.
- Saio guztiek 2 ordu inguruko iraupena izan dute.

Jarraian, prozesuaren baitan burutu diren 5 saioen fitxa teknikoak aurkezten dira:

1.SAIOA (2.fasean):	2.SAIOA (2.fasean):	3.SAIOA	1. SAIO BATERATUA (3.fasean):	2. SAIO BATERATUA (3.fasean):	3. SAIO BATERATUA (3.fasean):
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilera zenbakia: 1</li> <li>- Xede taldea: Gazte lokalen erabiltzaileak</li> <li>- Data: 2015-01-14</li> <li>- Lekua: Gaztelekua</li> <li>- Hasiera ordua: 18:30</li> <li>- Amaiera ordua: 20:45</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilera zenbakia: 1</li> <li>- Xede taldea: Bizilagunak/Vecinas/os</li> <li>- Data: 2015-01-21</li> <li>- Lekua: Bidebarrietako erabilera anitzeko gelan</li> <li>- Hasiera ordua: 18:30</li> <li>- Amaiera ordua: 20:45</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilera zenbakia: 1</li> <li>- Xede taldea: Jabeak eta gurasoak</li> <li>- Data: 2015-01-21</li> <li>- Lekua: Bidebarrietako erabilera anitzeko gelan</li> <li>- Hasiera ordua: 18:30</li> <li>- Amaiera ordua: 20:45</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilera zenbakia: 1.</li> <li>- Xede taldea: Gazte lokalen erabiltzaileak, bizilagunak, jabeak eta adin txikiko erabiltzaileen gurasoak</li> <li>- Data: 2015-02-11</li> <li>- Lekua: Gaztelekua</li> <li>- Hasiera ordua: 18:30</li> <li>- Amaiera ordua: 20:45</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilera zenbakia: 2.</li> <li>- Xede taldea: Gazte lokalen erabiltzaileak, bizilagunak, jabeak eta adin txikiko erabiltzaileen gurasoak</li> <li>- Data: 2015-02-25</li> <li>- Lekua: Gaztelekua</li> <li>- Hasiera ordua: 18:30</li> <li>- Amaiera ordua: 20:45</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilera zenbakia: 3. Saio bateratua</li> <li>- Xede taldea: Gazte lokalen erabiltzaileak, bizilagunak, jabeak eta adin txikiko erabiltzaileen gurasoak</li> <li>- Data: 2015-03-11</li> <li>- Lekua: Gaztelekua</li> <li>- Hasiera ordua: 18:30</li> <li>- Amaiera ordua: 20:15</li> </ul>

## DINAMIZAZIOA

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Parte hartzaile kopurua: 29 gazte, 11 neska eta 18 mutil</li> </ul> <p>Dinamizatzaileak: Nerea Zubia (Parte hartze arloko zinegotzia), Xabier Piko (Gazteria zinegotzia), Ion Lopez (Gazteria teknikaria), Arkaitz Martinez de Albeniz eta EkhiZubiria (Aztikerreko bideratzaileak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Parte hartzaile kopurua: 15 lagun, 6 emakume eta 9 gizon.</li> </ul> <p>Dinamizatzaileak: Xabier Piko (Gazteria zinegotzia), Ion Lopez (Gazteria teknikaria), Arkaitz Martinez de Albeniz eta Maitane Barrenetxea (Aztikerreko bideratzaileak), Javier Bujanda (lokaletan inkestatzaile lanak egin dituen gaztea)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Parte hartzaile kopurua: 20lagun, 11 emakume eta 9 gizon.</li> </ul> <p>Dinamizatzaileak: Arkaitz Martinez de Albeniz eta Markel Ormazabal (Aztikerreko bideratzaileak)</p> <p>Udal ordezkariak: Nerea Zubia (Parte hartze zinegotzia), Ion Lopez (Gazteria teknikaria), Javier Bujanda (lokaletan inkestatzaile lanak egin dituen gaztea)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Parte hartzaile kopurua: 20 lagun, 11 emakume eta 9 gizon</li> </ul> <p>Dinamizatzaileak: Nerea Zubia (Parte hartze arloko zinegotzia), Ion Lopez (Gazteria teknikaria), Arkaitz Martinez de Albeniz eta Markel Ormazabal (Aztikerreko bideratzaileak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Parte hartzaile kopurua: 8 lagun, 5 emakume eta 3 gizon</li> </ul> <p>Dinamizatzaileak: Arkaitz Martinez de Albeniz eta Markel Ormazabal (Aztikerreko bideratzaileak)</p> <p>Udal ordezkariak: Nerea Zubia (Parte hartze arloko zinegotzia), Ion Lopez (Gazteria teknikaria), Xabi Piko (Gazteria zinegotzia), Idoia Lazpita (udaltzainburua) eta Iñaki Landa (udal arkitektoa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Parte hartzaile kopurua: 5 lagun, 2 emakume eta 3 gizon</li> </ul> <p>Dinamizatzaileak: Arkaitz Martinez de Albeniz eta Markel Ormazabal (Aztikerreko bideratzaileak)</p> <p>Udal ordezkariak: Nerea Zubia (Parte hartze arloko zinegotzia), Ion Lopez (Gazteria teknikaria), Xabi Piko (Gazteria zinegotzia)</p>
--	--	---	---	--	--

## 2.4 PROZESUAREN KRONOGRAMA

Guztira, **zazpi hilabeteko epean** garatu da partaidetzazko prozesua, 2014. urteko abendutik, 2015eko uztaila bitarte. Lan saioekin martxoan bukatuta ere, protokoloaren erredakzioa eta itzulketa berriz, luzatu egin da eta beraz, prozesua hasi zenetik emaitza kaleratzen denerako esanenezake 7 hilabeteko tarte egon dela, abendutik uztailera.

Honelako kronogramaren baitan burutua izan da:

- ✓ KOMUNIKAZIO LANAK.  
2014ko ABENDUA eta URTARRILA
- ✓ 1. FASEA, OÑATIKO LOKALEN MAPA ETA EZAUGARRITZEA, GALDETEGIA:  
2014ko ABENDUAREN 22tik 2015eko URTARRILAREN 4ra.
- ✓ 2. FASEA: GAZTE LOKALEN FENOMENO SOZIALAREN DIAGNOSIAREN OSAKETA:  
2015eko URTARRILA
- ✓ 3. FASEA, ELKARBIZITZARAKO PROTOKOLOAREN OSAKETA:  
2014eko OTSAILA ETA MARTXOA
- ✓ PROTOKOLOAREN UDAL ADOSTASUNA ETA ERREDAKZIOA  
2015eko Apirila-Ekaina
- ✓ ITZULKETA, PROZESUAREN EMAITZEN AURKEZPENA, ELKARBIZITZA PROTOKOLOAREN DISEINUAREN AZALPENA:  
2015eko UZTAILA

## 3

**TALDEA**

Lokalen fenomenoaren inguruko partaidetza prozesu honetan, lau izan dira xede talde nagusiak.

- ✓ Lokaletako gazte erabiltzaileak
- ✓ Lokaletako bizilagunak
- ✓ Lokaletako jabeak
- ✓ Adin txikiko erabiltzaileen gurasoak

Horietaz gain, gazte eragile ezberdinetara hurbiltzeko eta prozesuan parte hartzeko saiakera egin da. Ordezkaritza zuzena agertu ez bada ere Oñatiko gaztetxeko kide batzuk parte hartu izan dute prozesuan, lokaletako erabiltzaile diren heinean.

Azkenik, prozesu honen sustatzaile izanik, Udal ordezkari ezberdinen inplikazio eta presentzia bilatu da saioetan, modu aktiboan, sustatzaile izan diren heinean Gazteria eta Parte hartze sailek hartu dute parte.

Prozesuaren zuzendaritza burutu duen talde osatu da: Gazteria zinegotzia eta teknikaria, eta Parte hartzeko zinegotziaren artean. Era berean, udal teknikarien taldea osatu da ere prozesuaren fase bakoitzean kontraste eta ekarpen gune bilakatu dena. Kasu honetan, hirigintza, idazkaritza, udaltzaingoa eta Prebentzio arloak.

Prozesuan zehar eman den parte hartzea gorabeheratsua da alde kuantitatiboari erreparatuta. 2.fasean egondako parte hartzea altua izan zen, saio guztietan 20 pertsonatik gora elkartu baitziren, modu berezian aipagarria izanik gazteen parte hartzea.

1.saio bateratuan ere 30 lagun inguru elkartu ziren, eta hurrengo bi saioetan parte hartzeak behera egin zuen nabarmen.

Saio guztietan egon dira bizilagun, guraso, gazte eta jabeak parte hartzen, prozesu osoan modu iraunkorrean 4-5 lagunek parte hartu badute ere.

Gaiak protagonista diren pertsonen gogoekin bat egitea lortu du.

**Gazteen** aldetik, lehen esan moduan, gazte kopuru handia pasa da bileraratik, lehenengo saio kopuru aldetik oso arrakastatsua. Saio batera baino gehiago etorri den gazte kopurua murrizta izan da. Honek gaiarekiko interesa erakusten badu ere, modu iraunkorrean parte hartzeko zailtasunak egon dira.





Orokorrean, gazteen jarrera aldatzen joan da prozesuak aurrera egin ahala eta interes desberdinak zituzten pertsonen arteko konfidantza eta elkar-entzutea garatu ahala. Hasieran jarrera defentsiboa nabari zen, nagusia prozesuarekiko ziurgabetasun edo zalantzak. Era berean, prozesu honek nola eragingo dien gehien arduratu den kolektiboa izan dela erakutsi dute datu kuantitatiboek. Bakoitzak bere interes eta eskubideak defendatzetik jarrera integraztaile eta ulerkorrago batera.

Bizilagunei dagokionez, lehenengo saioan parte hartzea altua izan zen, eta bizilagun gehienek fenomenoarekiko kezka eta ziurgabetasunak agertu zituzten. Jarrera eta diskurtsoaren eboluzio bat egon da saiotik saiora, hasieran segurtasun eta kontrol falta zen indarrez mahaigaineratutako kezka, eta prozesuan zehar hau mantendu bada ere, prozesuaren bukaeran diskurtso hori malgutu eta ikuspegi zabalago bat antzeman da. Egoera erregulatzeko formula baten eskaera iraunkorra izanik prozesu osoan, elkar ezagutza eta entzuteak lekua hartzen joan diren heinean behar horren nagusitasunak zentralidadea galtzen joan dela antzeman da.

**Jabeen** aldetik, kopurutan presentzia txikia agertu arren, jarraikortasuna prozesuarekiko mantendu da.



**Adin txikikoen gurasoen** kasuan hasierako saioan (jabeekin batera burututakoa) parte hartze altua egon zen, gurasoen aldetik dagoen erantzukizun eta kezka seinale. Diskurtso nagusia segurtasunaren defentsa eta ardura izan da: euren seme-alabak lokaletan dauden egoerarekiko kezka eta bizilagunekin eragin dezaketen harreman eta eragozpenekiko kezka. Egoerarekiko ezjakintasuna azpimarratzeko aspektua izan zen ere lehenengo saioan. Prozesuak aurrera egin ahala parte hartzearen beherakada nabaria izan da. Tartean arrazoi desberdinak egon daitezkeela ulertuta, zailtasuna antzeman da kolektibo hau protokolo edo araudiaren maila propositiboan bere burua kokatzeko ulean.

## 4

## **GAZTEEN LOKALEN EGOERAREN DIAGNOSIA ETA BALORAZIOA**

### **4.1 GAZTEEN LOKALEN EZAUGARRIAK ETA ERABILTZAILEEK ERABILERA ETA HARREMANEN INGURUAN DITUZTEN PERTZEPZIOEN IRITZI ETA BALORAZIOAK**

Lokalez lokal egindako galdetegiaren emaitzen eskutik, gazte erabiltzaileek lokalaren ezaugarri eta pertzepzioekiko dituzten hautemateetara hurbiltzeko aukera egon da.

Inkestatzaileen lanari esker OÑATIIn 23 lokal identifikatu ziren, hauetatik 22k bete zutelarik galdetegia.

- **LOKALAREN ALOKAIUAREN ETA HONEN EZAUGARRIEN INGURUAN AZPIMARRATZEKO IDEIAK:**

Inkestatutako lokalen prezioa kasuen %95,7a 200 eta 400€ artean kokatzen da. Lokal batek ordaintzen du 400 eta 600€ artean. Galdetegia burutu den lokalen artean ez da 200€ baina gutxiago edota 600€ baina gehiago ordaintzen duten kasurik aurkitu.

Alokairuaren prezioaren inguruan erabiltzaileek duten pertzepzioari dagokionez, inkestatuen %37,5ak uste du "merkealditxo"ren bat jasotzen dutela gazte lokalen ezaugarriengatik. %16,7ak lokaletako alokairua garestiagoa dela dio eta beste %16,7ak pentsatzen du berdin ordaintzen dutela lokalaren alokairua, nagusientzat moduan.

Lokala lortzeko bidearen inguruan %60,9ak dio pertsona ezagun baten bidez lortu dutela lokala. Iragarri baten bidez lortu izan dutenak kasuen %17,4a dira.

Lokal bat bilatzerako orduan lehentasuna merke izateari eskaintzen zaio, galdetegia bete dutenen % 82,4ak hori adierazten dute eta. %52,2ak adierazten du lokala ondo kokatuta egotea bilatzen duela eta %56,5ak lokala brrutik ondo egokituta egotea. %34,8ak adierazi du intimitatea izateak ere garrantzia baduela lokala bilatzerako lehentasunen artean.

- GAZTE LOKALEN EZAUGARRIAK:

Galdetutako lokalen batz besteko azalera 75,55 m<sup>2</sup>koa da.

Oñatiko gazte lokalen gehiengoak (54,4ak hain zuzen) 50 eta 80 metro karratu artean dituela adierazten dute. 23 kasutatik 3k 40 metro karratutik beherako azalera duen lokala dute, eta beste hiruk berriz, 100 metro karratutik gorakoa.

Lokaletako azpiegituren egoerari erreparatua lehenbiziko datua honakoa da: lokal guztiek daukatela instalazio elektrikoa. Uraren kasuan lokalen %56,5ek daukate eta komuna lokaletako %65,2ak dauka.

Leihodun lokalak galdetutakoen %78,3a dira eta %56,5ek daukate extintorea. Sukaldea 9 lokalek daukate.

Orokorrean, lokaletako behar eta gabeziei dagokionez elementu hauen inguruan aurki ditzazkegu beharren gako nagusiak:

- **Atea eta zerraila erreforzatzea, egondako lapurreta desberdinengatik eragindua**

Eta lokalean ez daukaten instalazioen beharra aipatzen dute egoera horretan aurkitzen diren lokaletako kideek, nagusiki bi huen inguruan:

- **Ur toma izatea**
- **Komuna izatea**

- LOKALEN OSAERA:

Lokaleko kideen kopurua 10-20 lagun bitartean kokatzen da kasuen %54,9an. 20 lagun baina gehiagoz osatutako lokala kasuen %40,9en egoera dela adierazten dute.

Erabiltzaileen adinaren inguruko datuek heterogeneitatea erakusten digute. 18 eta 24 urte bitarteko erabiltzaileak baldin badira gehiengoak, kasuen %43,5a izanik, 25 urtetik gorakoen lokalak identifikatutako lokalen %30,4a dira. 15 eta 18 urte bitartekoaren lokalak kasuen %26,1ekoak dira. 15 urtetik beherakoaren lokalik ez dagoela adierazi behar da.

Genero ikuspegitik lokalen osaerari dagokionez datu oso aipagarriak aurkezten dizkigute emaitzek.

Erabiltzaileen %93,1a mutilak dira lokaletan. Datu honek gaur egun Oñatin fenomeno erabat maskulinoaz ari garela adierazten digu.

Inkestatutako lokalen %73,9ak kuadrila berdinekoak diren kideetaz daude osatuta.

Lokalen %26,1a daude kuadrila desberdinen artean osatuta.

Kuadrila desberdinen artean lokala osatzearen arrazoia ekonomikoa da, gastuak murriztea alegia.

- LOKALAREN ERABILERA:

Lokala izatearen inguruko motibazioagatik galdetu zaie inkestatuei, zein ote zen euren arrazoi edo motibazioa lokala eskuratzekoan hain zuzen.

Gehienek hotzari aurre egin eta lagunekin egoteko leku bat izatea aipatzen digute. Tabernei alternatiba bezala ikusten dute batzuk lokala ere, tabernetako giroa eta uzten duten dirua murrizteko alternatiba bezala ikusten dute hauek.

Lokala zertarako erabiltzen duten galdegin zaie gazteei, eta gehienek lagunekin egoteko erabiltzen dutela adierazten dute.

Erabilera anitzeko espazioak direla ondoriozta daiteke erantzunak ikusita, izan ere afariak egin, peliak eta telebista ikusi eta lagunekin hitz egin dira gehien aipatutako jarduerak.

Kasuen %63ak adierazten du lokala egunero erabiltzen dutela. Aipatzekoa da ere kasu batzuetan eguneroko erabilera izanda ere inkestatuen %25,9ak esaten duela nagusiki asteburuetan erabiltzen dituztela lokalak.

- ANTOLAKETA ARAUAK:

Lokal gehienek, kasuen %95,5ak hain zuzen, barne arauak dituela adierazten du. Arauak kasuen %41,9an garbiketa antolatzeke izaten dira. Lokalaren ordainketa egiteko erantzundako lokalen %23,3ak dituztela arauak adierazten dute. Inkestatuen %16,3ak adierazten du erosketak egiteko arauak dituztela.

Lokal barruan erretzeari dagokionez, erantzun duten 22 lokaletatik 20k lokalean nahi duenak erre dezakeela diote. Hauetako batean ezin dela erre adierazi dute, eta beste lokal batean txoko batean baino ezin da erre lokal barruan.

Lokaletako %68,1ak musika taldeak dituztela adierazten du, hauetatik batek bakarrik entsaiatzendu bere lokalean. Gainontzekoak, 14k, beste lokal batean entsaiatzen dute. 531,8ak ez dauka musika talderik lokalean.

- HARREMANAK:

Bizilagunak ezagutzen ote dituzten galdegin zaie lokaletako erabiltzaileei, eta erantzunak nahiko parekatuak eman dira. Jasotako erantzunen %73,9k bizilagunak moduren batean edo bestean ezagutzen dituela aipatu du. Bizilagun batzuk bistaz ezagutzen dituztela diotenak %34,8a dira, eta %39,1ak berriz, batzuekin harremana ere badutela aipatu dute.

Inkestatuen gehiengoak (%71,4a) bizilagunekin harreman ona duela adierazten du. Bizilagunekin harreman txarra dutela lokaleko bateko kideek adierazten dute.

Bizilagunekin inoiz arazoren bat izan dutela erantzun dutenak guztira 7 kasu izan dira, eta horietatik 4k soinuagatik izandako arazoak aipatu dituzte. Ekarpenez gain jaso den beste kexa bakarra kotxeen aparkalekua dela eta izan da..

Erantzundakoen %56,5ak jabearekin duten harremana alokairuaren ordainketara mugatzen dela adierazten du, eta %8,7ak harremanik ez duela dio. Gainontzeko erantzunek, kasuen %34,8k jabearekin harreman ona duela adierazten du.

Lokal gehienek udaleko departamenturen batekin harremana izan dutela adierazten dute, %78,3ak zehazki. Hauetako gehienak atez atekoaren ezarpenaren harira izan dituzte harremanak, eta beste 4 lokalek udaltzainekin harremanak dira.

Lokal gehienek izan dituzte edo dituzte harremanak Oñatiko beste lokalekin. Harreman hauek laguntasun harremanak dira kasu gehienetan, kasu batzuetan ondoko lokalekoak kideak direlako.

Gazte lokalak ez diren bestelako eragileekin erabiltzaileek dituzten harremanengatik galdegin zaie eta %52ak harremanak Oñatiko gaztetxearekin dituela adierazi du. Bi lokaletako kideak Gaztelekuaren daukate harremana. Lokal hauetako kideak adin txikikoak direla aipatzekoa da. %36ak, ordea, bestelako eragilerekin harremanik ez duela aipatzen du.

- **PROZESUAREKIKO INTERESA:**

Kasuen %69,9ek prozesu parte hartzailea modu positiboan baloratzen du. Beste %21,7k prozesua beharrezkoa dela dio. %8,7ak prozesuak ez duela ezertarako balio izango uste du. Prozesua positiboa edota beharrezkoa dela esaten dutenen artean 10 lokaletako kideek prozesuaren beldur direla adierazten dute.

## 4.2 GAZTE LOKALEN FENOMENOAREN BALORAZIOA

Gazte lokalen izatearen inguruko lehenengo hurbilpena burutu da prozesu honetan, fenomeno honen inguruko ikuspegi desberdinak mahai gainean jarri eta ikuspegi anitza sortzeko helburuarekin.

Aldeen artean zenbait desberdintasun baldin badaude ere, hurrengo taulan modu bateratuan aurkezten dira fenomenoari ikusten zaizkion alde positibo eta negatiboak.

ALDE POSITIBOAK	ALDE NEGATIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkar biltzeko tokia</li> <li>- Oso positiboa</li> <li>- Dibertsioa</li> <li>- Lagunartea</li> <li>- Gazteen emanzipaziorako lehen pausua</li> <li>- Autogestioa eta Antolakuntzarako ardurak jasotzea</li> <li>- Taldea indartu</li> <li>- Leku bat elkartzeko</li> <li>- Lagunarteko elkarbizitza gestionatzen ikasi</li> <li>- Gazteak elkar eta lasai egoteko alternatiba bat</li> <li>- Egoteko lekua da</li> <li>- Gazteen espazioa da</li> <li>- Ondo pasa</li> <li>- Sozializatzeko gazteen modua da</li> <li>- Kuadrillen elkargunea</li> <li>- Beste lagunekin elkartu</li> <li>- Talde lana sustatzen du</li> <li>- Talde barruan harremantzen laguntzen du</li> <li>- Kuadrillaren batasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bizilagunekiko arazoak sortzea</li> <li>- Segurtasuna Sortu daitezkeen arazoak</li> <li>- Arautu gabeko leku itxi, kontrolik gabekoa</li> <li>- Taldearen giroak eta presioak sortu dezakeen giro txarra</li> <li>- Lokalaren erabiltzaile eta kontratuaren sinatzaile ez dela berdina</li> <li>- Erantzunkizunak</li> <li>- Arriskuak</li> <li>- Adin txikikoekin espazio baten erabilera praktikan gurasoak jakitun izan gabe bertan zer gertatzen den</li> <li>- Sukaldearen egoerak, nola dauden eta nola erabiltzen diren</li> <li>- Gazteen ghetifikazioa</li> <li>- Legalitate falta</li> <li>- Alkohola eta drogak kontsumitu daitezke</li> <li>- Kontroletik kanpoko gunea</li> <li>- Gazteen jardueren ezezagutza falta</li> </ul>

Ondorio gisa azpimarratu dezakegu alde guztiek onartzen dutela lokalek gazteen elkargunea idrela, gazteen espazio propioa, gazteek kudeatuta.

Faktore negatiboak dagokionez lokalen segurtasun falta azpimarratzen da, kasu honetan, bakoitzak hartzen duen ikuspegipetik: lokalen azpiegiturari dagozkionak batzuk, beste batzuk, gazteen jardueraren gaineko kontrolik ez izateak eragiten duen segurtasun falta azpimarratzen dute.

### **4.3 GAZTE LOKALEN ERABILERA ETA FUNTZIOAK**

Fenomenoaren balorazioarekin batera, gazte lokalaen egitate sozialari presentzia eskaini eta gazte lokalek gaur egun duten funtzioa aztertu izan da prozesuaren hastapenean.

Jarraian, gazte lokalek betetzen duten funtzioaren inguruan aldeek dituzten iritzi eta pertzepzioak agertzen dira zerrendatuta:

- Elkargune bat laguntzat
- Telebista ikusi
- Erre
- Edan
- Afaldu
- Berriketan egin
- Eztabaidatu
- Etxe merke bat da
- Kanpoko lagunen batek lo egiteko
- Norberak (taldeak) kontrolatzen duen espazio bat izatea
- Parranda jarraitzeko lekua (afterra)
- Pikaderua
- Kiroletako materiala gordetzeko
- Espazio publikoan egin ezin diren gauzak egiteko gune bat izatea
- Ondo pasa
- Batzuentzat bigarren etxea da
- Aisialdiaren gestioa
- Sozializatzeko espazioa
- Babesa (inor sartuko ez den espazioa)
- Talde izaera eraikitzen laguntzen du
- Taldea euren artean ezagutzea (onera/txarrera)
- Dena da beraientzat
- Aske sentitzen dira
- Nagusi sentitzea
- Kontrol gutxiago dute
- Espazio merkea da eta aurreztu daiteke
- Kontsumo behar gutxiago dute
- Jolasteko gunea
- Jabego zentzua garatzea
- Autogestioa garatzea
- Zenbait egitekoetarako auzolana ezartzea
- BERE espazioa dute

Zer eragiten dizue lokal batek?

Alde eta pertsona desberdinak egon direnez prozesu honetan elkar harremanean, interes berezia hartzen du gazteak ez diren pertsonen lokalen inguruan duten ikuspegi eta pertzepzioak.

Jarraian, era berezitan aipatzen dira alde desberdinei lokalen izatea berak eragiten dizkien ikuspegi eta sentipenak. Lokalen izate eta elkarbizitzaren inguruan ikuspegi bateratua sortze aldera, lokalek eragiten dituzten ikuspegiak aintzat hartzea garrantzitsua da.

**Bizilagunek honela erantzuten dute:**

- Gauetako loa, Osasuna (confort), deskantsurako eskubiderik ez izatea
- Kanpoko espazioaren erabilera okupatzea
- Tentsioa eta beldurra
- Haserrea
- Segurtasun falta
- Mugimendua atzera eta aurrera ibiltzen dira
- Fatxada erabiltzen dutela informazioa emateko: kartelak, pegatinak
- Buruko mina
- Segurtasun falta dauden baldintzengatik
- Beldurra
- Ezinegona
- Stress-a
- Lo falta
- Pisuaren prezioa devaluatzea

**Honela erantzuten dute jabe eta gurasoek:**

- Ardura
- Erantzunkizuna
- Dirua
- Kezka
- "Paga" igotzea
- Sua eta butanoagatik beldurra
- Izkutua
- Gertatudaitekeenagatik beldurra
- Barruan egin dezaketenagatik ziurgabetasuna
- Barruan egin dezaketenagatik segurtasun falta



#### **4.4 LOKALEN INGURUAN SORTZEN DIREN GATAZKAK**

Hurrengo urrats batean lokalen inguruan sortzen den elkarbizitzan bitzako gatazkak eragin dituzten gaiak identifikatu ditugu.

- Espazio publikoaren erabilera desegokia: bizikletak, kotxeak, baloiak
  - Zarata: atea itxi-irekitzean, insonorizaziorik eza, builak, telebista, musika altua
  - Ate danbatekoak
  - Ahotsak gauetan
  - Musika altua
  - Deserosotasuna garajeetatik sartzen direlako
  - Estatutuak. Lokalek ez dituzte baldintzak betetzen
- 
- Lapurretak
  - Lokaleko giltzak galdu ditugunean jabe eta bizilagunarekin (ezin dugu kopiarik egin)
  - Bizilagunekin bizikletak aparkatzeagatik
  - Lokalen artean soinuagatik
  - Bizilagunekin usainengatik
  - Bizilagunekin zaratarengatik (oso exageratuak dira)
  - Sutea
  - Beste lokal batekin atea arrankatu zigutelako
  - Jabearekin lokalaren ordutegiarengatik (itxiera ordutegia genenukan)
  - Bizilagunekin kotxe aparkalekuengatik

Ikus daiteken moduan gatazkak nagusi edota errepikatuenak gai hauen inguruan izan dira:

- **Soinua**
- **Espazio publikoaren erabilera**
- **Lapurretak**
- **Suteak**

## 4.5 SORTZEN DIREN BEHARRAK

Egoeraren inguruko azterketa burutu ostean alde eta pertsona bakoitzak lokaletako egoera eta elkarbizitza hobetzeko dituzten beharrak zehaztu dituzte.

Beharren inguruan hitz egiterakoan argitu behar da aldeek egindako diagnostikoan elementu negatibo gisa zehaztutako abiapuntutik eginda dagoela beharren zerrendatzea.

Modu honetan alde bakoitzak adierazitako beharrak identifikatu dira, eta, hortik abiatuta, aldeen artean konpartituak diren beharrak zehaztu.

Behar konpartitu hauen inguruan ulerkeria eta esanahi anitzak badaude ere, helduleku partekatu eta baliagarriak izan dira.

<b>GAZTEAK</b>	- Ordutegi libreak - Lokalaren azpiegituran hobekuntzak - Segurtasun gutxieneko batzuk
<b>BIZILAGUNAK</b>	- Lasaitasuna - Elkarbizitza - Komunikazioa - Errespetua
<b>JABEAK</b>	- Eskubide eta betebeharrak zehazten dituen araudia
<b>GURASOAK</b>	- Segurtasuna



- **Segurtasunaren inguruko kezka.** Segurtasuna bere adiera zabal batean ulertzea beharrezkoa bada ere garrantzi handia hartzen du. Alde batetik, segurtasuna barrukaldeari begira aipatzen da eta erabiltzaileek bere jarduerarako sentitu nahi duten segurtasunari begirakoa, eta, bestalde, lokalaren kanpoaldeari begira zuzendutakoa: lokalak bizilagunei molestia ahalik eta gutxiena eragiteko bermatu behar dituen neurriak.
- **Leku propio bat nahi izatea.** Espazio propioa izateak garrantzia hartzen duen elementua da, eta bakoitzak erabiltzen duen espazioa bere sentitzeak duen balioa azpimarratu da. Lokala eta etxearen arteko paralelismoak sortu dira.
- **Komunikazioa.** Pertsonen arteko komunikazioa elkarbizitza hobetzeko giltzarria dela ulertzen dute guztiek. Funtzionamendu egokia egoteko komunikazioa beharrezko elementu bezala identifikatzen da.
- **Errespetua.** Pertsona guztiek garrantzia eskaintzen diote aspektu honi

## 5

**EMAITZA NAGUSIAK**

Atal honetan prozesuaren zioarekin lotutako emaitza edo eduki nagusiak aurkezten dira.

Bi azpiatal nagusitan dago banatuta atal hau:

- Gai desberdinen inguruan egindako PROPOSAMENAK
- Proposamen hauen oinarrian HARTUTAKO ERABAKIAK

Atal hau bost azpiataletan banatuta agertzen da, prozesu ikuspegiaren baitan landutakoarekin koherentzian. Hona hemen azpiatalak:

- ✓ Elkarbizitza irizpideak
- ✓ Gazteen lokaletako azpiegitura baldintzak
- ✓ Protokoloak bildu beharreko gaiak eta proposamenak
- ✓ Lokalen erregistroa
- ✓ Aurrera begirako prozedura

## 5.1 PROPOSAMENAK

Jarraian saioetan partaideek eremu edo gai bakoitzarekin lotuta burututako proposamenak aurkezten dira:

### SOINUA

- SOINU EGITEKO ORDUTEGIA EZARTZEA (Etxebizitzetan dagoenaren antzekoa)
- LOKALAREN ERABILERARAKO ORDUTEGIA EZARTZEA
- KALEKO ZARATA EZIN DA MUGATU
- LOKALEN INSONORIZAZIOA BURUTZEA

### ESPAZIOAREN ERABILERA

- KOTXEAK BEHAR BEZALA APARKATUAK UZTEA
- BIZIKLETAK APARKATZEKO ESPAZIO ZEHATZAK ERAIKITZEA
- LOKAL DENEK KOMUNA BEHAR DUTE KANPOAN BEHARRAK EZ EGITEKO

### KOMUNIKAZIOA

- GAZTE SAILETIK BITARTEKARITZA ESKAINI GAZTE ETA BIZILAGUNEN ARTEKO ARAZOAK BIDERATZEKO
- BIZILAGUNEN KOMUNITATEKO BILERAN GAZTEAK PARTE HARTU
- KOMUNITATEA ETA GAZTEEN ARTEKO HARRERA PROTOKOLOA ZEHAZTU

Proposamen hauek egin ostean eztabaida gehien eragindako eremuan, SOINUaren gain alegia, elkarbizitza ematen ez den kasuetan jarraitu beharreko prozeduraren inguruan aritu gara.

### BETEARAZPENA

#### SANTZIOAK JARTZEA KEXAK DAUDENEAN

Proposamen honekin irizpide desberdinak planteatu dira:

- 2.kexarekin kaleratzea ematea eskatzen duen posizioa agertu da.
- Bestetik prozedura malguagoa izatea proposatzen duen posizioa agertu da, kasu honetan udalak jokatu dezaken bitartekaritza paperari funtzio inportantea emanez.

ARAUAK BETETZEN EZ DEN KASUETAN LOKALETIK KALERATZEKO AUKERA EGOTEA

### LOKALETAKO AZPIEGITURA

Lokalek bete beharreko baldintzen inguruan elementu nagusia izan da lokalen suegurtasuna. Segurtasunaren ulerkera bi modu desberdinetan planteatu da:.

- Segurtasuna lokal barruan, alegia, erabiltzaileen segurtasuna bermatuko duten neurriak.
- Segurtasuna lokal kanpoan, alegia, bizilagunen segurtasuna aintzat hartuko duten neurriak.

Hona hemen taldekideek adierazitako baldintzak:

### KOMUNIKAZIOA

- KOMUNA
- ARGINDARRAREN POTENTZIA ALTUA
- ATE SEGURUA
- AIREZTATZEA
- LURRAZPIKO GARAJEAK EZ IZATEA
- EXTINTOREA
- IRTEERA ARGIAK
- SUKALDEA EZ IZATEA EDO BALDINTZA ZEHATZAK IZATEA HORRETARAKO
- TEKNIKARIEN BERMEA (IKUSKARITZA) IZATEA LOKALEN BALDINTZEN INGURUAN

## 5.2 HARTUTAKO ERABAKIAK


Azpiatal honetan gai desberdinen inguruan parte hartzaileek hartutako erabakiak aurkezten dira. Erabaki hauek aurreko azpiatalean agertzen diren proposamenetatik abiatu dira.

- SOINUA

Aurreko saioan landutako bi proposamen izan dira eztabaidagai gaurko saioan eta bi hauen gaineko erabakia hartzeko dinamika burutu dugu.

Jarraian, aurkezten den argazkian alde batetik (koadroan bertikalean) orain arte zehaztu diren beharrak ageri dira eta horizontalean soinuaren afera arautzeko bi alternatibak ageri dira:

- Soinu ordutegia. Lokalean sortu daitekeen soinu maila erregulatzea.
- Erabilera ordutegia. Lokalen erabilerarako ordutegia ezartzea.



3.Saioan egindako azterketari erreparatuta honakoa mahaigaineratu zen:

- Bi kasuetan ordutegi libreen beharra ikusten da arriskuan dagoela, termometroan temperatura hotz samarrarekin antzematen da. Erabilera ordutegiaren kasuan ez duela bermatzen ikusi da.
- Komunikazioa bi kasuetan bermatuta ez dagoela ikusten da eta eremu hau hobetzeko beharra argi ikusi da.
- Errespetua eta bakoitzak bere eskubide eta betebeharrak ezagutzea bermatuta ikusten da bi kasuetan, errespetua edo deskantsurako eskubidea erabilera ordutegiaren kasuan bermatuagoa ikusten bada ere.
- Azkenik, segurtasunaren eremuan bermatuagoa ikusten da erabilera ordutegiaren kasuan. Soinu ordutegiaren kasuan zalantzan ikusten da aspektu hau. Desberdintasun honek, nagusiki, segurtasun arazoak kasu askotan gauean gertatzen direlako erantzuten dio.

**SOINU ORDUTEGIA** hobestea erabaki da, bi proposamenak ikusita eragozpen gutxien sortzen duen proposamena izanik.

Era berean lokalen insonorizatzeko aukera balioan jartzea adostu da, aukera dagoen kasuetan hau bermatzeko aukerak aztertuz.

- **BIZIKIDETZA**

Aldeen arteko elkarbizitza hobetu eta bermatzeko hainbat neurri proposatu dira.

- Komunikazioari dagokionez honako neurriak sortuko dira:
  - ✓ Gazteek komunitateko bileretan parte hartze urtean behin
  - ✓ Komunitatea eta gazteen arteko harrera protokoloa zehaztu
  - ✓ Lokalak erabiltzeko gida osatzea
  - ✓ Komunitate arazoak sortzen direnean Gazte sailetik bitartekaritza lana burutuko da
- Espazioaren erabilera: kotxeak aparkatzeko eta bizikletak aparkatzeko lekuak ezarri eta errespetatzea

Neurri eta helburu orokor hauek honela garatzea proposatu zen azken saioan.

**Ze puntu jaso behar ditu harrera protokoloak?**

- Santzio prozeduraren azalpen eta aurkezpena jasoko du
- Lokala erabiltzen hasi aurretik bizikidetza adostuko dute bizilagun eta gazteen artean (hitzarmena osatzeko saiakera).
- Lokal jabeek protokolo honetan papera jokatzen dute ere.
- Harrera bilera burutuko da gazteek lokal bat hartzen dutenean. Harrera bilera horretan lokaletako erabiltzaile, bizilagun eta jabeek hartuko dute parte
- Lokala erakutsiko zaie bizilagunei gazteek hala nahi badute, elkarbizitzarako lehen urrats gisa

**Bitartekaritza... nola irudikatzen dugu? Nork osatzen du?**

3 urrats desberdin egongo dira bizilagun eta erabiltzaileen artean arazoak sortzen direnean:

- Gazte eta bizilagunek zuzenean hitz egitea izango da lehenetsiko den urratsa. Gazteei egoeraren berri eman eta soluzionatzeko saiakera egingo dute.
- Jabeekin. Bizilagunek lokal jabeek jakinaraziko diete beraien kexa, jabeek kexa honen berri izan dezaten. Jabeek komunikazio bidea zabalduko dute erabiltzaileekin.
- Udalarekin. Bizilagunak udaleko bitartekariarekin jarriko dira harremanetan egoeraren berri emateko eta bitartekaria gaztekin harremanetan jarriko da. Honen ostean osatuko da Bizikidetza Mahaia, udal bitartekariak kudeatuko duena. Mahai hau biltzen den lehenengo aldi arazoa aztertu eta neurriak hartuko dira.

Bitartekaritzaren afera plano desberdinetan garatzea proposatu da: arazoan aurrean aktibatu beharrekoa eta adrazorik gabeko egoeratan Komunikazioa hobetzeari begirako bitartekaritza. Azken hauetan ere udaleko bitartekariarekin elkartzeari komenigarria litzateke. Komunikazio bide iraunkorra egotea planteatzen da.

- **BETEARAZPENA**

Zehazten den jarduera protokoloa betearazteko prozeduraren inguruko zehaztapenak burutu dira.

**Ze jarduera kontsideratuko dira arau haustekak?**

Espazioaren erabilerarekin loturikoak (gaizki aparkatzea) eta soinu ordutegia ez betetzea edo gainditzearekin lotutakoak

**Zein izango da prozedura? Zenbat kexekin hartuko dira neurriak? Ze neurri hartuko dira?**

Arau hausteen mailaketa bat egitea proposatzen da (arinak, larriak eta oso larriak).

Kategoria bakoitzaren barruan arau hauste desberdinak sortu eta batzuen errepikapenak maila altuagoko santzioa izatea suposatuko du.

- **EZARPENA**

Epeak martxan jartzeko prozedura eta epeak eztabaidatu eta hainbat aspektu argitu dira.

Behin lokalen erregistroa osatuko dela zehaztuta hainbat zehaztasun egin dira.

**Araudia sortzen denetik ze epeetara erregistratu beharko dira lokalak?**

Lokaletan eta jabeekin egin beharko den aurkezpen eta lan komunikatiboa aintzat hartuta hilabete batzuetako epea eskainiko da.

**Zenbateko epea eskainiko zaie obrak egin behar dituzten lokalei eta euren jabeei?**

- Ahalik eta azkarren
- Hilabete bat eta bi artean
- Daudenei epe bat eman eta zabaltzen diren lokal berriei zuzenean baldintza egokituak izatea eskatuko zaie
- 2 hilabete identifikatzeko eta teknikariak ikuskatzera joateko

- **AZPIEGITURA BALDINTZAK**

Hauek dira lokal batek jarduera eroso eta segurua bermatzeko zehaztutako baldintzak:

- Komuna
- Argindarraren potentzia altua
- Ate segurua
- Aireztatzea
- Lurrazpiko garajeak ez izatea
- Extintorea
- Irteera argiak
- Sukaldea ez izatea edo baldintza zehatzak izatea horretarako
- Teknikarien bermea (ikuskaritza) izatea lokalen baldintzen inguruan
- Animaliak lokalean izatea?
- Asegurua
- Kontratua



## 6

## **PROZESUAREN BALORAZIOA**

### PROZESUAREN EBOLUZIOA

Lehendabiziko hiru saioak modu berezitan antolatu ziren, hau da, gazteekin saio bat, bizilagunekin beste bat, eta jabe zein gurasoekin bigarren saioa.

Gazteen aldetik, hasiera batean, elkar ulertu eta elkarbizitzarako jarrera baikorrarekin aurkitu ginen, bizilagunen egoerarekiko ulermena eta kezka agertu ziren alde batetik, eta komunitatearekin eta bizilagunekin harremanak indartu zein ingurunearen parte izateko borondatea agertu zen. Bestalde ere, hasiera batean prozesuarekiko mesfidantza eta beldurra agertu ziren ere, udalak prozesu honen ostean lokalak itxi edo erabilera mugatzeko izan ditzazkeen kezkak adierazita.

Bizilagunekin egindako lehen saioan jarrera desberdinak topatu genituen, orokorrean gazte lokalen izatearen inguruko ulermen jarrera nagusitu bazen ere. Hauen artean batzuk gazte lokalak gazteriaren sozializazio prozesuan elementu garrantzitsu gisa ulertzen dituzte, beste iritzi batzuk, ordea, lokalekiko ezegonkortasun eta eragozpenak azpimarratu dituzte, gazte lokalen fenomenoaren errealitate gatazkatsu eta ezkor gisa ulertuta.

Hasierako urrats honen ostean gazte lokalen inguruko elkarbizitzan bildutako ikuspegi guztiak irudikatu genituen eta abiapuntu horretatik ikuspegi bateratua sortzeko saiakera burutu. Elkarbizitza egoera eta beharrak landu eta guztien artean elkar ezagutza eta elkar ulertzearen garrantziak hartu zuen protagonismo nagusia. Izan ere, gatazka egoerei aurre egiteko eta elkarbizitza osasuntsua sustatzeko ezinbestekotzat ulertzen zen elkar entzun eta elkar ulertzea.

Eragile bakoitzaren beldurrak, bizipenak, egoera eta sentimenduak azaleratu eta konpartitu ziren lehen urrats bezala, eta horretatik, bizilagunek zein gazteek bakoitzak beren espazioan dituzten beharrezkoak zeintzuk izan ziren elkarbanatu zen.

Ondorengoia izan zen prozesu honen une garrantzitsua, bakoitzaren beharretatik abiatuta behar konpartituak identifikatzea. Honek sendotasuna eskaini zion lokalen inguruko ikuspegi bateratu sortzearen asmoari, izan ere, interes desberdinak dituzten pertsonen artean partekatzen dituzten beharrak irudikatzea prozesuaren kohesioan lagungarri izan zen. Prozesuan modu finkoan parte hartu duten herritarrek, bai bizilagun zein gazteek, izandako jarrera malguaren ondorioz hurbiltasuna egon da, eta adostasunak ahalbidetu ditu.

### PARTAIDEEN POSIZIOEN BALORAZIOA

Hasiera batean aldeen artean iritzi eta jarrera homogeenak antzeman ziren.

Egia da ikuspegi integrala lantzea izan dela prozesuaren helburua eta eboluzio bat egon da partaideek erakutsitako jarreran. hasieratik ikuspegi hau izan duten pertsonak egon dira, taldea ikuspegi integrala izatera eramatera lagundu dutenak.

Modu batean, taldeak barneratu du prozesuaren emaitzarekin zerbait irabazi zezaketela, bidean ere zerbait utzita.

Azken saioan emaitzarekiko atxikimendua sortu zen. Bideak agintzen zuen bezala, ez zen ikuspegi bat osotasunean aintzat hartzen zuen planteamendurik adostu, baizik eta ikuspegi desberdinak errespetatzen dituen proposamen bateratua. Hauxe izan da prozesuan zehar erabakiak hartzeko bilatu eta indarrean jarri den formula, bakoitzaren beharrei leku bat egitea, osotasunean barneratuta izatea ezinezko izango zela kontziente izanda.

## 7

## **AURRERA BEGIRAKO PROZEDURA**

Atal honetan abiatutako prozesuak aurrera begira eman beharreko urratsak aurkezten dira.

Partaidetzazko prozesua gazte lokalen fenomeno arautu eta elkarbizitza osasuntsu bat sortzeari begira lehen urratsa izan da. Hemendik aurrera berriz, prozesua bururaino emateko beste hainbat urrats geratzen direla ulertzen dugu:

- ✓ Behin betiko protokoloaren idazketa. Itzulketa batzarra egin ostean jasotako ekarpenak berrikusi eta behin behineko protokoloan beharrezko aldaketak egingo lirakeke.
- ✓ Elkarbizitza protokoloaren moldaketa eta onarpena.
- ✓ Oñatiko gazte lokalen inguruko Elkarbizitza Protokoloaren aurkezpen publikoa.
  - Prozesuan zehar Ordenantza egitearen gaiarekin sortutako zalantza eta kezka argitu, eta ordenantza ez egitearen ondorioz sor daitekeen "galtzaile" sententzia neutralizatu.
  - Gazte erabiltzaile eta bizilagun gehiagorengana iristeko aukera baliatu protokoloaren hedapena errazteari begira. Interlokuzio zuzena garatzea eragileekin (gazte, bizilagun eta jabeak).
- ✓ Protokoloaren zabalpen lanetarako baliagarriak izango diren euskarriak sortu eta hedapen kanpaina egitea.
- ✓ Eragile desberdinekin protokoloaren hedapena burutzea, lokaletako erabiltzaileekin modu berezian.
- ✓ Aholku gida editatu eta lokaletan banatu
- ✓ Lokalen erregistroa (Errolda). Epeak eta komunikazioa definitu.
- ✓ Udal barne mailako euskarri, egitura eta zerbitzuen antolaketa:
  - Udal erregistroan beharrezko euskarri eta materialak eskaini.
  - Protokoloaren edukiaren zabalpena Udal barne egituraren, beharrezkoa den sail, teknikari eta langileekin.
  - Bitartekaritza Zerbitzuaren antolaketa.

Era berean, protokoloak arreta berezia eskatzen duela aintzat hartuta Aztikerretik prozesu honetan ikusitakoetan oinarrituta zenbait gomendio egin nahi ditugu.

Hona hemen aholku hauek:

- ✓ Aholkularitza zerbitzua eskaini tramiteen inguruan (kontratuak eta aseguruak).
- ✓ Lokalen "poltsa" sortzeko aukera (kalitatezko eskaintza). Lokal berri eta oinarrizko betekizunei egokitzen ez direnrentzako alternatibak eskaintzeko.
- ✓ Lokalen inspektzioa egin, baldintzen berme gisa.
- ✓ Bitartekaritza Zerbitzua eskaini. Gatazken bideratzeko adostutako prozedura jarraitu (Elkarbizitza Mahaia).
- ✓ Desestigmazio Prozesua. Lokalen bertuteak eta jarduerak erakusteko Programa/kanpaina abiatzeko aukera.
- ✓ Lokalen errealitatea sozializatu eta desestigmazioan lagungarriak izan daitezken dinamikak sustatu (lokalen fatxadak margotzeko lehiaketak...)
- ✓ Harreman eta Komunikazio prozeduretan sakondu. Bizilagun eta erabiltzaileen arteko komunikazioa bultzatu elkarbizitza irizpideen adosteko (lokaleko ordezkariak eta administrarien artean adibidez).
- ✓ Ikuspegi komunitarioa landu. Bizilagun eta erabiltzaileen artean adostasun bideak bilatzea sustatu.

## 8

**ZENBAIT ONDORIO**

Prozesu hau gazteen lokalen fenomenoan inplikatuak diren aldean artean Oñatin bizi den egoera islatu eta erakusteko baliagarria izan da. Gertakari sozial honek sortzen duen egoeraren ispilu izan da, gazteriaren antolakuntza modu berri baten erakusle eta bizipen gatazkatsuez hornituta dagoena kasu batzuentzat.

Azpimarratzekoa da prozesu honetako parte hartzaileek izan duten profila, izan ere, fenomeno honekiko hurbiltasun edo egoerari erabat loturik egon baita.

Prozesuan parte hartu duten bizilagun batzuk elkarbizitza arazo edo gatazkak izan dituztenak izan dira. Gazte lokalen fenomeno arazo bezala ulertu zein bizi izan duten pertsonak izan dira hauek, baina bizilagunen iritzia ez da bloke hertsia bat izan, alegia, lokaletako erabiltzaileekin komunikazioa izan eta arazorik bizi izan ez duen bizilagunek hartu dute parte ere saioetan; aspektu hau perspektiba zabaltzeko elementu baliagarria izan da.

Gazte lokalen erabiltzaileen artean batzuk egoera gatazkatsuek bizi izan dituzte bizilagunekin eta beste askok berriz arazo gutxi izandako gazteak izan dira, momentu puntualen batean bizilagunekin gorabeheraren bat izandakoak agian, baina orokorrean bizilagunekin harreman ona izan dutenak.

Prozesu honen argazkia, beraz, egoera sozial konplexu baten existentziarena izan da, gazteen antolakuntza modu berriei erantzuteko motibazio batetik abiatu dena. Gazteriaren errealitate hau aintzat hartuta elkarbizitza komunitarioa izan da xede iraunkorra.

Eta egoera konplexua diogu bizilagunen aldetik molestia eta egoera gatazkatsuek azaleratzeak bizitasun eta errealismoa eskaini diolako prozesuari.

Honekin batera segurtasunaren inguruko kezka elementu zentral eta kasu batzuetan kohesionatzailea izan da.

Gai honekin lotuta azpimarratzekoa da gurasoek prozesu honetan izandako parte hartzea eta segurtasunaren gaineko kezka modu zuzenean mahaigaineratu izanagatik. Hemen gazteen sozializazio eta heldutze prozesuaren elementuak azaleratu baitira.

Aski jakina da gazte lokalen fenomenoak ez duela zertan gatazka egoera batekin loturik egon, eta hori ere argi geratu da, prozesuan zehar jarritako eta erakutsitako hainbat egoera eta adibiderek, baina gatazka eta ezinegon egoeraei irtenbidea eta beharrezko garrantzia eta espazioa ematea ezinbestekoa izan da. Elkarbizitzaren adierazle gisa agertu baitira egoera gatazkatsuek ere

Maila teorikoan gazte lokalen jardueraren legitimotasuna ez da zalantzan egon, nahiz eta hasierako uneetan diskurtso batzuek bizilagun eta erabiltzaileen arteko eskubide talka batean irudikatu egoera. Gazte lokalek gaur egungo egoera sozial baten errealitatea islatzen dutela, eta harremantzeko modu berri bati erantzuten dion diskurtsoa ere oso presente egon da prozesuan zehar. Bi diskurtso hauek partekatzearen ondorioz sortu dira proposamenak egiteko elikagaiak.

Partaidetza prozesu oro heziketa prozesu bat dela azpimarratu dugu hasieratik, eta, kasu honetan, prozesuaren argudioen eboluzioa honen isla izan da.

Egoera batek elkartzen dituen pertsonen artean elementu komunak existitzen direla ikustea eta entzutea izan da prozesuaren helduleku inportantea, norbere interes eta beharrak eta komunitatearen plano berdinetan jartzen saiatzea aurrera egiteko ongarrria izan dira. Hain zuzen, komunitatearen beharrak bakoitzaren beharrek osatzen dutela ikustea garrantzitsua izan da ikuspegi kolektibo bat sortze bidean.

Urrats honetan logikoa suertatzen da beldurrak azaleraztea, nor bere posiziotik mugitzerakoan galdu dezakeenaren beldurra hain zuzen. Formula partekatuak asmatzerakoan galdu eta irabaztearen sentipenak lekua dutela irudikatzea garrantzitsu suertatu da ere. Garrantzi berezia eskaini zaio prozesuan galtzearen sentsazioari, alegia, egindako proposamenetan zein ikuspegi edo zein behar ez den aintzat hartu, edo ez hartzeko arriskua egon den. Modu hau erabakietan ikuspegi kolektibo kanpoan ez uzteko gauzapean pedagogikoa izan da.

Horretaz gain, garrantzitsua izan da elkarbizitzaren inguruko lanketa egiterakoan partekatutako erantzukizunaren inguruko ideia lantzea. Elkarbizitza osasuntsua izatea ez dago bataren edo bestearen esku, bakarrik, guztien eskuetan dagoelako ideia landu eta elkarbizitza osasuntsurako pausu eta urratsak guztien esku daudela adierazi beharra izan da.

Edonola pertsonen arteko interes eta elkarbizitzaren arteko formula komunitarioetan sakontzearen beharra aipatu eta ikusi da prozesuan zehar modu iraunkor batean. Arau eta mugetatik haratago aldean arteko komunikazioa indartzea eta beharrezkoa suertatzen den kasuetan bitartekaritza formulak abian jartzea interesgarri ikusi da.

## 9

**ERANSKINAK**

- LOKALETAKO GALDETEGIEN EMAITZEN TXOSTENA
- SAIOETAKO AKTAK
- OÑATIKO GAZTE LOKALEN INGURUKO ELKARBIZITZA PROTOKOLOA: JARRAIBIDE, GOMENDIO ETA AHOLKUAK

[a]  
aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

Martin Ugalde Kultur Parkea, Gudarien Etorbidea z/g

20140 ANDOAIN [GIPUZKOA]

943 59 30 06 / 608 018 512

[www.aztiker.com](http://www.aztiker.com) -[idazkaritza@aztiker.com](mailto:idazkaritza@aztiker.com)

